
Familietan inbertitzea gure gizarteetan inbertitzea da

Familien Nazioarteko Egunean, familien aldeko politiketan inbertitzeko eskatzen dio Caritas Europak EBri

Caritas. 2018ko maiatzaren 9a.- Maiatzaren 15ean Familien Nazioarteko Eguna dela eta, Caritas Europak familien aldeko politiketan inbertitzeko eskatu die Europar Batasunari eta hango estatu kideei. Gizarteko oinarritzko unitatea da familia, eta edozein gizarte justutako hiru zutabe nagusietako bat ere bai -lan-merkatu inklusiboa eta gizarte-babeserako mekanismoak dira beste biak-.

Guztien onurarako diren familien aldeko politikak diseinatzea behar-beharrezkoa da Europaren etorkizunarentzat. Horregatik, ezinbestekoa da Giza Eskubideen Europako Oinarriarekin duten konpromisoa betetzen hastea Europako buruzagiak. Europako gainbehera demografikoari nahiz pobreziaren eta desberdintasunen gorakadari aurre egiteko politikak hartu behar dira berehala. Familietan inbertitzea gure gizarteetan inbertitzea da.

Familien dimentsio soziala sendotzeak mesede egiten dio hurrengo belaunaldien ongizateari. Izan ere, Garapen Iraunkorreko Helburuak betetzen laguntzen du, batez ere helburu hauek: lehen helburua (pobrezia amaitzea), 5. helburua (emakume eta gizonen arteko berdintasuna), eta 10. helburua (desberdintasunak murriztea).

Garapen iraunkorreko helburuetan aurrera egitea

"Familiak ahalduntzeko inbertsioak egiteak eta haiek sortzen duten giza kapitala sustatzeak gizarte osoari egiten dio mesede. Hain zuzen, argi eta garbi, gizarte baketsu eta inklusiboak bultzatzen dituzte familiek. Espero dut Garapen Iraunkorreko Helburuak bete ahal izateko behar adinako aurrekontuak egitea eta familien aldeko politika sendoak ezartzea estatu kideek", adierazi du Jorge **Nuño Mayer** Caritas Europako idazkari nagusiak.

Testuinguru horretan, familien aldeko politika hauek sustatzeko gomendioa egiten die Caritas Europak botere legegileei:

1. Familia-bizitzarako eskubidea errespetatzea

- Lan- eta familia-bizitzak bateragarri egiten laguntzea eta familiak babestea haurrak dituztenei hileroko laguntzak emanez (haur-onurei buruzko ikuspegi unibertsalean oinarrituta). Laguntza horrek handiagoa izan behar luke diru-sarrerara txikiak dituzten familientzat.

- Haurrak zaintzeko beharrezko azpiegiturak bermatzea eta horiek arrazoizko prezioan eskaintzea.

- Familia-orientaziorako zerbitzuak martxan jartzea.

2. Familia zaintzeak dakarren lana antolatzea, babestea eta lan horri balioa ematea

- Urteko egun batzuetan familia zaintzeko baimen bereziak ematea: haurrak, adinekoak, gaixo daudenak eta abar zaintzeko.

- Zaintza-lanetarako baimen luzeagoetan gutxieneko diru-sarrerara batzuk bermatzea.

- Zaintza-lanetan emandako denbora aukerakoa izatea pentsio-eskubidearen kalkulurako.